



memoriaper(ak)

DOCUMENTOS DE TRABAJO
DEL FONDO DOCUMENTAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA EN NAVARRA

NAFARROAKO OROIMEN HISTORIKOARI BURUZKO FONDO DOKUMENTALAREN
LANGAIK

Nº . Zbk. 16

<https://memoria-oroimena.unavarra.es/informes>

Emakumeak eta errepresioa: emakumeen jazarpena
Ordena Publikoko Auzitegiaren (TOP) sententzien bitartez.

Autoría / Egileak: Irune Bueno Delgado

Fecha de publicación / Argitalpen data: 2024ko Otsailaren 1- 1 de febrero de 2024



ISSN 2444-5932

Memoriaparer(ak)

- Documentos de Trabajo del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra
- Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalare Langaiak
- Working papers of the Documentary Archive of Historical Memory in Navarre

Edita / Editorea:

- Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea:

- Emilio Majuelo Gil
- Fernando Mendiola Gonzalo
- Nerea Perez Ibarrola
- Gemma Piérola Narvarte

Acceso / Sarbidea:

- <https://hdl.handle.net/2454/47309>
- <https://memoria-oroimena.unavarra.es/informes>
- <https://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=26564>

Licencia / Lizentzia

- Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International (CC BY-NC-ND 4.0). <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

ISSN:

- 2444-5932

El Consejo Editorial no se identifica necesariamente todas las opiniones publicadas en esta serie de documentos de trabajo

Batzorde Editorialak ez du ezinbestean bat egiten langai hauetan argitaratzen diren iritzi guztiekin.

Emakumeak eta errepresioa: emakumeen jazarpena Ordena Publikoko Auzitegiaren (TOP) sententzien bitartez

Laburpena:

1960ko hamarkada geroztik, Espainiako Estatuan gatazka soziopolitiko eta ekonomikoak hazi ziren. Egoerari aurre egiteko, erregimenak errepresio ziklo berri bat ireki zuen eta *Tribunal de Orden Público*-a sortu zuen, non beste motatako delituak epaitu arren, batez ere antifrankismoan zeuden mugimenduen militanteak epaitu ziren. Testuinguru horretan, Euskal Herria, eta batez ere Nafarroa, Estatu osoko zonalde gatazkatsuenak izan ziren. Txosten honen helburua TOPean Nafarroarekin loturiko emakume epaituen inguruko ikerketa egitea da.

Hitz gakoak: TOP / emakumeak / Nafarroa / genero / errepresioa

Resumen:

Desde la década de 1960, en el Estado español se produjo un incremento de los conflictos sociopolíticos y económicos. Para hacer frente a la situación, el régimen abrió un nuevo ciclo de represión y creó el Tribunal de Orden Público, en el que a pesar de juzgar otro tipo de delitos, se juzgó sobre todo a los militantes de los movimientos antifranquistas. En este contexto, el País Vasco, y sobre todo Navarra, fueron las zonas más conflictivas de todo el Estado. El objetivo de este informe es realizar una investigación sobre las mujeres juzgadas en el TOP relacionadas con Navarra.

Palabras clave: TOP / mujeres / Navarra / género / represión

1. SARRERA

Ikerketa honen helburua da 1963ko eta 1976eko urte bitarteko Ordena Publikoko Auzitegiaren (*Tribunal de Orden Público – TOP*) Nafarroarekin lotutako emakumeen sententzien ikerketa egitea, batez ere kuantitatiboa. Lan honekin gehiago ezagutu nahi dugu TOPea epaituriko emakumeek sufritu zuten jazarpen frankista, hala nola, hauek nondik zetozen, zenbat urte zituzten, zer lanbide zituzten, noiz atxilotu eta epaitu zituzten, torturak sufritu zituzten ala ez, zer nolako delituengatik epaituak izan ziren eta zer nolako zigorrak jaso zituzten.

Ikerketarako jarraitu den metodologia, 1963 eta 1977 TOPea Nafarroarekin loturiko sententziak 225 dira, horietatik emakumezkoei dagozkien 1967ko eta 1975en urte bitarteko 27 sententziak analizatu egin dira, guztira 26 emakume dira.

2. TESTUINGURU OROKORRA

1950eko hamarkada bukaeratik aurrera Espainiako Estatuan bizitako eraldaketak gizartean ondorioak izan zituzten. Oposizio antifrankistaren hazkunde jarraiarekin batera, Erregimenak errepresio moduak berritu zituen.

1950ko hamarkadan Gobernu berriak desarrollismo ekonomikoaren politiken bitartez aurreko egoera ekonomikoa hobetu zuen. Honek oparotasun ekonomikoa, nazioarteko irekiera eta kontsumo gizarterako trantsizioa eragin zuen, errenten eta kontsumoaren hazkundearen bitartez (De la Torre, 2006); nahiz eta polarizazio soziala areagotu zen.

Joseba De la Torre historialari ekonomikoak azaltzen duen bezala, politika ekonomikoa industrializazio azkarraren garapenarekin batera etorri zen Iruñean, non aurreko hamarkadarako industria-sektoreak finkatuta zeuden, besteak beste Felix Huarteren eskutik, bereziki metalikoa eta elektronika (De la Torre, 2017). Hala, Nafarroa lehen sektorearen jardueran

oinarritutako probintzia izatetik bigarren eta hirugarren sektoreko probintzia izatera igaro zen. Politika hauek landa eremuko exodoa eragin zuten Estatu osoan, eta ondorioz, Nafarroa lurralde emigratzaile izatetik lan-indarraren inportatzaile izatera igaro zen. Iruñean, hazkunde demografiko honek biztanleriaren kontzentrazioa eragin zuen, eta horrekin batera etxebizitzakrisia (Oliva eta Rivera, 2003; García Sanz eta Mikelarena, 2000). 1960ko hamarkadara arte, hirigintza politika faltak hiria anarkikoki haztea eragin zuen, eta ordutik aurrera Udalak eskualde baten sorrera aurreikusi zuen, besteak beste, Txantrea, Arrotxapea, San Juan edo Arrosadia auzoen bidez.

Frankismoak berezko gizarte politikak egin zituen masa kontrolpean izateko eta langile klasea desagerrarazteko. Hala, gizarte sektore bakoitzarentzako esparru berriak egin zituen, zeinaren adibide diren langileentzako Sindikatu Bertikala, emakumeentzako Emakume Atala (*Sección Femenina – SF*) Gazteen Frontea edo Espainiako Gazte Erakundea (*Organización Juvenil Española - OJE*) gazteentzat. 1950eko hamarkadatik aurrera politika berriekin protesten hazkunde progresiboa gertatu zen, gehienak eskubide eta askatasunekin lotuta. Langileen kasuan, 1960ko hamarkadan Erregimena lan-legedia egokitzen saiatu zen egoera ekonomikora. Baina dagoeneko, langile klaseak jada CCOO bezalako sindikatuetan antolatua zegoen, frankismoaren aurkako oposizioaren barruan.

Mugimendu soziopolitikoaren berpizteak eta protesta kopuruaren hazkundeak eragin zuen 1960eko hamarkadan Erregimena errepresio ziklo berri bati ekitea, Ikerketa Sozial edo Politiko Sozialeko Brigadaren¹ eskutik

¹ TOParen errepresioa ulertzeko, Ikerketa Sozial edo Politiko Sozialeko Brigadaren polizia-funtzionarioen jarduna ulertu behar da. Horrek funtsezko zeregina izan zuen erregimenaren errepresioaren barruan, ordena publikoaren bermatzailea zen, eta horretan eragina izan zezakeen edozein jokabidek subjektu susmagarri bihurtzen zuen, polizia-kidego horrek identifikatu eta atxilotzea ahalbidetuz (Aguila, 2020, 219-221.or). Ildo horretan, zeregin nabarmena izan zuen lan-gatazken errepresioaren eta jazarpenaren eta mobilizazioen barruan, bereziki 1962koetan, erabateko zigorgabetasunez jokatuz; urte horretan bertan, kidego horren atxilotetak % 80 igo ziren, eta % 40 udaberri hartako gatazkekin lotuta zeuden (Aguilar, 2020, 80-82 eta 219.or), izan ere 1961an Brigada honen atxilotze prebentiboak 1335 izan ziren, eta 1962an 2438 (Sombria, 2022, 675.or).

areagotu zena (Del Aguila, 2020, 71.or). Brigada honek hamarkada hasieran atxiloketa gehienak, besteak beste, komunistatzat, anarkistatzat, sozialistatzat edo errepublikartzat jotako pertsoneri egin zitzaizkien (Sombria, 2022, 676.or). Horrekin batera, testuinguru honek Ordena Publikoko Auzitegia eta Epaitegia sortzea eragin zuen.

Nafarroako kasuan, Nerea Pérezen tesia jarraituz, 1956 eta 1976 urte bitartean langile mugimendua sortu zen Elizaren mugimendu sekularren egituraren barnean, subjektu historiko berri gisa (Pérez, 2016, 538.or). Langile mugimendua 1960.eko hamarkadan handitu zen eta protesten hazkundera gertatu zen. Iriartek aztertu duen bezala, langile mugimenduak 1970 eta 1975 bitartean bere puntu gorena lortu zuen (Iriarte, 1986).

Horrekin batera, 1960en hamarkadaren bukaeratik ezker iraultzailea (ORT, EMK, PTE, LKI/LCR, LC, OIC/EKE edo PCE bezalako taldea) agertu zen (Satrustegi, 2022), zeina antifrankismoko beste mugimenduekin bat egin zuen eta hauen arteko lotura gisa jardun zuen.

Garai honetako beste eragile nagusietako bat ikasleak izan ziren, Estatu mailan Espainiako Unibertsitate Federazio Demokratikoan (Federación Universitaria Democrática Española - FUDE) bilduta. Nafarroako kasuan, eraldaketa ekonomikoekin batera 1952.an Nafarroako Unibertsitatea sortu zen. Bertan 1965 eta 1968 urte bitartean, Ikasleen Sindikatu Demokratikoa (Unión de Estudiantes Demócratas – UED) sortu zen, zeina, besteak beste, SEU-ren erreforma partzialen kontrako protestak egin zituzten eta honen ondorioz 1969.an sindikatua desagertu zen (Iriarte, 1991, 603 eta 604.or). Iriartek aztertu duen bezala, sindikatuaren desagertzea 1969an Unibertsitatean eragina izan zuen, mobilizazioak gora egin zuten eta printzipio demokratikoak jarraituz ikasleak berrantolatu ziren Nafarroako Ikasle Batzordean (Comité de Estudiantes Navarros - CEN) 1971 urtean (Iriarte, 1991, 607 eta 608.or). Ikasle batzordeek garaiko borroka eta sektoreekin bat egin zuten, horren adibide da Motor Iberica-ko zein Potasas de Navarra-ko langileekin izandako elkartasun grebak eta gizarte

mugimendu berriekin batera antifrankismoaren inguruan bildu ziren. Aldi berean, gizarte mugimenduetan belaunaldi berriak militatzen hasi ziren, hauek kultur egituren, balioen eta ohituren aldaketak eskatzen zituzten.

Frankismoak bere politiken barnean genero - estereotipoak erreproduzitu zituen, emakumea familia eta etxeko lanekin lotu zituen (Pierola, 2018). Emakumeek frankismoan zehar jaso zituzten errepresio formak ugariak izan ziren, eta Varok zein Pierolak azaltzen duten bezala, hauek jasandako eraso politikoa ez zituzten zigortu haien ideologia politikoagatik soilik, baizik eta jokabide horiekin alde batera uzten zutelako frankismoak erreproduzitu nahi zuen emakume onaren ideala (Varo, 2012, 85.or; Pierola, 2024 [prentsan]). Erregimenaren arabera, antifrankismoan murgilduta zeuden emakumeak frankismoak ezartzen zien genero eta politika ereduaren kontrako disidentzia jarraitzen zuten (Varo, 2012, 97.or). 1960ko hamarkadan, lantoki eta esparru soziopolitikoetan emakumeen presentzia handiagotu zen (Pérez, 2019). Ezkerreko alderdiak gutxinaka feminismoaren auzira hurbiltzen joan ziren. Ezker iraultzaileko alderdietan emakumeen kopurua handitzeari dagokionez, printzipio feministen eta berdintasunezko printzipioen eskaerak areagotu egin ziren eremu publikoan eta pribatuan; izan ere, emakumeen gehiengoak deuseztatu zuen etxe ereduaren jarrera. Ezker erradikaleko alderdiek komunismoaren ildoetara jarraitu zieten irakurketa trotskista edo maoistekin, eta horrek feminismoa onartzeko zailtasunak ekarri zuen, genero-estereotipoak errepikatuz eta emakumeen sarrera zailduz (Moreno, 2016). Mónica Morenok azaltzen duen bezala, erakunde soziopolitikoaren barnean generoaren araberako lan banaketak egiten ziren, gizona ordena-zerbitzuetan edo piketeetan aritzen ziren, eta emakumeak antolaketa zereginetan, pankartak edo banderak egiten, idazkari edo ekitaldietako otorduak egiten zituzten (Moreno, 2016, 61.or). Hala ere, genero desberdintasunak ez ziren soilik, izan ere borrokan aritu zen gizonaren, eta batez ere espetxeratuta izan bazen, irudia "heroizat" jotzen zuten, eta garaiko taldeen prentsan islatzen zen modu horretan, aldiz

emakumezkoen kasuan “biktima” gisa ikusiak ziren eta haien espetxeratzeak ez ziren prentsan agertzen (Varo, 2012, 102.or).

3. TRIBUNAL DE ORDEN PÚBLICO – TOP:

Espetxeetako jurisdikzio eta politika frankistak uneko gertakariei eta interesei lotutako bilakaera eta egokitzapena izan zuen, eta horrek, beste erakunde autoritario batzuekin batera, funtzio errepresiboa bete zuen. Ordena Publikoko Epaitegia eta Auzitegia sortzearen kasuan, 1962ko udaberriko testuinguru gatazkatsuarekin eta Genevako Legelarien Nazioarteko Batzordearen *El imperio de la Ley en España*² txostenaren emaitzarekin bereziki lotuta egon zen, non jurisdikzio militarra neurritz kanpoko tresna gisa gehiegi aplikatzen zela salatzen zen (Del Aguila, 2020, 67. or.).

Auzitegia 1963an sortu zen lege-dekretu baten bitartez eta 1964tik 1976ra bitartean egon zen martxan, zeinaren helburu nagusienak ziren subertsibotzat jotako jokabideak zapaltzea eta epaile zibilek ordena publikoarekin lotutako kausak azkar ebaztea (Del Aguila, 2020, 216, 227 eta 293; Sombria 2022, 681.or). Horrekin batera, TOPak honako delitu hauek epai zitzakeen: Estatuaren kanpo-segurtasunaren, Estatuburua, Gorteak, Ministroen Kontseilua eta gobernu-eraren aurkakoak; matxinada, sedizioa, desordena publikoak edo legez kanpoko propagandak; legez kanpoko atxiloketa, adingabeak oatea, bizilekua bortxatzea, mehatxuak eta derrigortzeak edo sekretuak ezagutaraztea (Nuñez de Prado eta Ramirez, 2013, 267.or).

Hala ere, TOParen funtzionamenduan irekitako prozeduren kopurua progresiboki hazi zen, batez ere 1968tik aurrera unibertsitate-zentroei lotuta,

² Txostena kritikoa izan zen erregimenarekin, eta doktrina-printzipioak, jatorriak, egitura politikoa eta juridikoa, askatasunak eta eskubideak aztertu zituen. Batzorde horrek ondorioztatu zuen antzinako altxamendu militar batek legitimatutako erregimen diktatoriala zela, oposizioaren aurkako errepresioari eusten ziola eta askatasunik eta printzipio demokratikorik eza salatzen zuela. Erregimenak herrialdea zuzenbidezko estatua zela defendatu zuen, eta espetxeratutako preso politikoak izatea ukatu zuen (Del Aguila, 2016, 97-101. or.).

ondorioz, Epaitegian areto berri bat ireki zen, plantilla handitu zen eta Del Aguilak "makro-epaiketa" gisa izendatzen duena erakunde politiko-sindikaletako hainbat kide epaitzen hasi zen (Del Aguila, 2020, 227 – 233.or). Francoren heriotzarekin, erregimena demokraziarako trantsizioa hasi zuen, eta horren ondorioz, besteak beste, 1977ko urtarrilean Ordena Publikoko Auzitegia desagertu zen eta Auzitegi Nazionala sortu zen (Nuñez de Prado eta Ramirez, 2013, 268.or).

Del Aguila-ren azterketari jarraituz, 1964 eta 1976 bitartean TOPak 8.118 zigor aplikatu zizkien 6.748 pertsonari. Azterlan horretan TOPak emandako epaien % 99,66 aztertzen dira, eta horietatik % 75 kondenak izan ziren, guztira TOPak 11.958 urteko kartzela-zigorra eta ia 32.500.000 pezetako³ isun zigorrekin (Del Aguila, 2020, 232, 233 eta 240.or). Oro har, auzipetu gehienek ez zuten aurrekari penalik, ezkongabeak ziren, eta kasuen % 79,4an behin-behineko espetxealdia aplikatu zieten hiru egunez baino gehiagoz, disidentzia politikoa zigortzeko (Del Aguila, 2020, 229 eta 233, 249 eta 250.or). Zentzu honetan, Sombriak aipatzen duen bezala, TOPEko zigorrak aurretik gerra kontseiluak ebatzitakoak baino lausoagoak ziren arren, testuinguru berri honetan demokrazietan eta zuzenbide estatuetan ohikoak ziren jarduera politiko eta sindikalengatik gaitzesten zituzten herritarrak (Sombria, 2022, 692.or).

Errepresio kuantitatibo handiena erakusten duten delituak legez kontrako elkartzearekin, legez kanpoko propagandarekin, manifestazioekin ala desordena publikoekin lotutakoak dira (Sombria, 2022, 682.or). Horrek zerikusi zuzena du frankismo berantiarreko protesten gorakadarekin eta gazteen militantziaren gorakadarekin; izan ere, auzipetu gehien dituen adin-tartea 18-30 urteei dagokiena da, eta horietatik gehienak ikasleak, administrariak edo langileak ziren (Del Aguila, 2020, 248 eta 251.or).

Auzipetuen genero-banaketari dagokionez, gizonezkoen kopurua handiagoa izan arren, ikerlarien arteko desberdintasun kuantitatiboak

³ Isunen kasuan, nabarmendu behar da auzipetu gehienak kaudimengabetzat jotzen zirela, eta, beraz, kasu askotan, horiek espetxe-zigorra bete behar izan zuten, ezin izan zutelako isuna ordaindu.

daude genero kopuruetan. Del Aguilak egindako ikerketetan aipatzen du gizonezkoak 8.240 zirela eta emakumezkoak 806, %10.25 alegia (Del Aguila, 2020, 247). Varo-ren ikerketei jarraituz aldiz, 8.068 gizon eta 875 emakume, hala Auzipetuen guztizkoaren %10,84 emakumeak dira (Varo, 2012, 87.or). Batak edo besteak ematen dituen datuak desberdinak izan arren, emakumeen presentzia handitzen joan zen, batez ere 1969tik aurrera. Izan ere, poliziak uste zuen emakumeak ez zeudela politizatuta, inplikazio politiko gutxiko etxeoandreak zirela, eta, egotekotan, senarraren eraginez izaten zela; hala ere, 1960ko hamarkadaren amaieran hasi ziren pentsatzen emakume batzuk "arriskutsuak" izan zitezkeela, bereziki ikasleak eta profesionalak (Varo, 2012, 96.or). Emakumeen kopurua txikiagoa izateak haien militantzia eta aktibismoa isilagoa izatea edo erregimenak berak mugimendu eta alderdi horietan sartzea espero ez izatearekin lotuta egon daiteke.

Horrek erakusten du diktaduraren hasieran eta amaieran antzekotasun bat egon zela, presoen izaera aldatu bazen ere, aurkari politikoaren aurkako errepresioari dagokionez, gatibutzak funtsezko funtzioa bete baitzuen.

Historiografiari dagokionez, azken urteotan aurrera egin da espetxe sistema frankistaren azterketan, baina iturri faltak eztabaida batzuk ekarri ditu. Hori da garai bakoitzeko presoek kopuruaren edo torturaren kasua, oraindik ez baita adostasunik lortu. Kriminologiaren Euskal Institutuak egin zuen txostenaren arabera, 1960tik 1978ra nafarrek guztira 169 tortura edo tratu txarreatiko salaketa egin zituzten, horietatik 114 Nafarroan bertan egin ziren (Kriminologiaren Euskal Institutua, 2019, 58.or).

Espetxe-sistemari dagokionez, 1938an Espetxeen Ministerioa eta Zerbitzu Nazionala sortu ziren, eta modu zentralizatuan definitu zen espetxe-sistema, eta, ondoren, 1948ko Espetxe Zerbitzuaren Erregelamenduak arautuko zuen sistema berria (Velasco, 2023, 11-12.or). 1940ko hamarkadarako, ziegak masifikatuta zeuden Gerra Zibilari dagokionez; 1950erako, berriz, behera

egin zuen, eta hurrengo hamarkadetan berriro egin zuen gora, preso arruntekin.

Emakumeen kasuan, emakumeak preso hartzeko zentroak egon arren, ez da ezagutzen atxilotuen guztizko zenbatekoa 1960ko hamarkadara arte (Lorenzo, 2023). Duela gutxi egindako azterlanetan, Velasco-renean kasu, 1940ko erroldako preso politikoen % 13 emakumeak ziren Iruñean (Velasco, 2023, 22. or.), eta aldiz, Lorenzok dio 1974rako estatu mailan preso zeudenen %5a emakumeak zirela (Lorenzo, 2023). Gainera, bi generoek izaera ideologikoagatik errepresioa eta torturak jasan zituzten bitartean, emakumeen kasuan genero-indarkeria ere gehitu behar da. Lorenzok argudiatzen duen bezala, emakumeen espetxeetako baldintza- ezberdintasunak eta kopuru txikiak COPEL (Lorenzo, 2023) bezalako erakunde femeninorik ez sortzea eragin zuen; hala ere, erakunde horien presentziak, frankismo osoan zehar, gatazkak izan zituen beste presoekiko elkartasunari dagokionez, bai espetxeetan bai hauen kanpoan, bizi baldintzen eta amnistiaren eskaerekin.

4. TOP-EAN EPAITURIKO EMAKUME NAFARRAK:


Ordena Publikoaren Auzitegian epaitutako % 2,57a (225 pertsona) nafarrak ziren, gehienak hiriburukoak, eta gainerako Hego Euskal Herriarekin batera TOPEko auzipetuen jatorrizko gune nagusia (Del Aguila, 2020, 253-254 eta 258.or; Iriarte, 1996). Datu horiekin ondorioztatu dezakegu 1970eko hamarkadan Estatuko gune gatazkatsuenetako bat izan zela. Nafarroarekin lotutako 225 kasuetatik, %88a gizonezkoak ziren eta %12a emakumezkoak. Analisisian Ordena Publikoaren Auzitegiaren 26 emakumeen 27 sententzia aztertu dira⁴, zeinak Nafarroarekin lotuta daude bertan jaio, bizi ala atxilotua izateagatik.

⁴ Emakume bat, bitan epaitua izan zen.


Izen abizenak	Sententzia zenbakia
Rosa Inda Orella	86/68
María Jesús García-Falces Garijo	206/68
Estefanía López García	206/68
María del Puy Ruiz de Larrinaga y Martínez de Morentin	214/69
María Aranzazu Arruti Odriozola	282/69
María Luisa Mangado Cortes	287/71
María Esperanza Pardo Iguzquiza	129/72
Blanca Soledad Fernández Viguera	295/72
María Amparo Arangoa Satrustegi	311/72
Marcelina Martínez Beades	143/73
María Cruz Erdoziain Santesteban	278/73
María Luisa Murillo Bravo	376/73
María del Pilar Cezano Martínez	280/74
Josefina Fernández Artola	397/74
María Jesús Rebolé Redín	421/74
María Gloria Bosque Ezker	522/74
María Concepción Edo Gil	522/74
María Ángeles Munarriz Agorreta	539/74
Sara Munarriz Agorreta	539/74
María Begoña Susana Aramburu Rojas	558/74
Catalina García de la Torre	135/75
Carmen Martínez Angos	188/75
Natividad Murgi Bakedano	474/75
María Purificación Telletxea Artieda	64/76
María Gloria Bosque Ezker	149/76

Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Emakumeen gehiengoa ezkongabeak ziren, eta aurretik aipatu bezala, antifrankismoan gazte militantziaren gorakadaren isla da hauen gehiengoa 20-30 urte bitartekoak izatea.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.




Iturria: Egileak egina (2024). TOPeko 1967tik 1976ko sententziekin.

Hauen lanbideen inguruan, gehiengoa langileak edo ikasleak ziren. Langileak ziren emakumeen artean, hauek %63a ziren eta grafikoan ikusi

daiteke hainbat postu ezberdinetan zeudela, hala nola irakaskuntzan, administraritzan, merkataritzan ala fabriketan. Sei emakumeren kasuan sententzian ez da zehazten zer nolako lanpostuetan zeuden, eta ziurtasunez jakin ez arren, Larrazarena bezalako ikerketa-ildoei jarraituz, 1975eko erroldan 15-39 urte bitarteko emakumeen adin-taldean honako lan-eremuetan zeuden, handienetik txikienera ordenatuta: zerbitzuko langileak, tarteko kategoriak, artisauak, goi-mailako profesionalak, erdi-mailako profesionalak eta kualifikaziorik gabekoak (Larraza & Montoro, 2006, 299.or). Iruñearen kasuan, TOPean agertzen diren emakumeen gehiengoaren bizileku nagusi gisa, Mendiolak aztertu duen bezala, hiriaren industrializazioak ez zuen berarekin ekarri sektore horretako emakumeen partaidetza handitzea 70eko hamarkadaren erdialdera arte; izan ere, 1975erako, Iruñean emakumeen enplegu-tasa %25,5 zen (Mendiola, 240.or). Nabarmendu behar da datu horiek ez dutela ezkutuko ekonomia biltzen, non emakume askok egiten zuten lan. Ikasleen kasuan, hauek %33a ziren, Nafarroan ikasitakoak egon arren, gehiengoak kanpoan ikasi zuen, Zaragoza, Madril, Gijon edo Bilbon. Azkenik, soilik kasu batean ez da zehazten sententzian emakumearen lanbidea.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententzietan.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.


Horrekin batera, emakumeen jaioterria erreparatuz, emakumeen gehiengoa Nafarroan jaiotakoak zirela ikus daitekeen arren, beste probintzia batzuk ere agertzen dira, Bizkaia eta Gipuzkoa kasu; baita Valladolid, Jaen edo Burgos orduan bizitako migrazio prozesuen adierazlea dena. Jaioterria zehazki aztertzerakoan, nafar gehienek (11 emakume) Iruñeko merindadean jaio ziren. Iruñearen atzetik, Lizarrako eta Zangozako merindadeek jarraitzen diote 6 eta 3 emakumeekin, azkenik, Tuterako eta Erriberriko merindadeak aurkitzen ditugu, bakoitzean emakume bat agertzen da. Emakume hauek bizilekua zein zuten erreparatuz gero, gehienek Nafarroan zuten batez ere, Iruñeako merindadean, nahiz eta beste hainbat toki agertzen diren ere, Bartzelona, Madril edo Kantabria kasu.




Iturria: Egileak egin (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.



Iturria: Egileak egin (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Jaioterriarekin eta bizilekuarekin gertatzen ez den bezala, atxiloketak gertatu ziren probintziak aztertzerakoan, sententzia batzuek ez dute atxiloketaren lekua zehazten. Horrekin batera, Nafarroa berriz kuantitatiboki nagusiena izan arren, bestelakoak agertzen dira, batzuk jaioterriarekin edo bizilekuarekin zerikusirik ez dute. Lehen aipatu bezala, emakumeen %33a ikasleak ziren atxiloketen unean, ondorioz bestelako lekuak agertzen dira Madril, Gijon edota Zaragoza kasu.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententzietan.

Atxiloketaren urtearen eta prozeduraren ebazpenaren arteko denbora-aldeari dagokionez, gehienak urtebete baino gutxiagokoak izan ziren. Hala ere, 1970etik aurrera, ebazpena pixka bat gehiago atzeratzen hasi zen; kasu batzuetan, 1970eko hasitako prozesuak 1972an edo 1973an ebatzi ziren, eta hurrenez hurren. Nahiz eta urte horietan aurreko prozedurak itxi ziren, urte bereko kausei ere erantzun zitzairen. Ebazteko denbora gehien behar izan zuen prozedura 4 urtekoa izan zen: 1971an atxiloketa gertatu zen eta 1975ean epaitu zen. Beraz, urteak igaro ahala, TOPak irekita zituen prozesuak kuantitatiboki handitu ziren, eta horiek ebazteko denborak gora egin zuen, nahiz eta epaitegi berriak ireki. Gainera, batzuk urte berean edo denbora gutxian ebaztearen inguruan, baliteke epaitzen ziren delituen larritasunak eragina izatea, batzuek interes handiagoa izan zezaketan epaitegiaren aldetik sententzia emateko.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Azterturiko 27 sententzietan, horietatik %85 delitu bakarrarengatik epaituak izan ziren, %11ak birengatik – 3 emakume – eta %4a hiru delituengatik – emakume bakarra -. Epaitutako delituak aztertzerakoan kuantitatiboki ugarienak elkarte ez zilegia, propaganda ez zilegia, manifestazio ilegala, desordena publikoa eta bilera ez baketsua dira. Gainontzeko delituak – identitate faltsua, sarrera klandestinoak, manifestazio ez baketsua eta inprimaki klandestinoak – kasu bakarrean agertu diren arren, besteei lotuta daude militantziarekin edota arlo politikoan.



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Delituei modu zehatzean erreparatzean, aurretik aipatu gisa, guztiak garaiko antifrankismoaren barneko militantzia soziopolitikoarekin lotuta egon ziren. Horien barnean, elkarte zein propaganda ez zilegia kuantitatiboki delitu nagusienak izanda, hauek batez ere ETArekin ⁵,

⁵ Euzkadi Ta Askatasuna (ETA) 1958ko abenduan jaio zen, EAJren zatikien artean, eta, ondoren, borroka armatua erabili zuen bere eskaerak aldarrikatzeko, besteak beste, abertzaletasuna, euskal abertzaletasunaren ideien berrikuspenarekin, Euskal Herrian Estatu bat sortzeko (Casanova, 2007). ETAk EGIren egitura-eredua txertatu zuen, militante gehienez gain

FRAPekin⁶, Espainiako Mugimendu Komunistarekin⁷ (*Movimiento Comunista Español – MCE*) edo LKlrekin⁸ (*Liga Comunista Revolucionaria – LCR*) lotuta daude. Espainiako Mugimendu Komunistaren edo PCEn kasuan, hauek batez ere ikasleekin lotuta daude, izan ere, emakume asko militante gisa sartu ziren talde hauetako ikaskuntza sekzioetan Zaragozan, Gijonen edota Madrilen ikasketak burutzen zituzten bitartean. Horrekin batera, langile mugimendua nagusia da, bitan agertzen da manifestazio ilegala eta desordena publikoari lotuta, garaiko manifestaldiekin lotuta. Kasu hauetan Maiatzaren Lehenari eta Arrotxapean izandako greba bati lotuta daude. Identitate faltsuaren, sarrera klandestinoaren eta erlijioarekin loturiko desordena publikoaren delituen kasuan, hauek arlo soziopolitikoarekin lotuta daude ere. Lehendabizikoa FRAPi lotuta dago, bigarrena ETArri eta azkenekoa 1974ko ekainaren 13ko protesta bati lotuta dago, zeinetan mugimendu kristauetako langile talde gazte bat Gorpuzti Eguneko ospakizuna boikoteatzen saiatu zen. Azkenik, talde soziopolitiko hauek kuantitatiboki zenbat alditan agertzen diren haintzat hartzen badugu,


(Casanova, 2007). ETA V, biltzarrean talde ezkertiar, sozialista eta iraultzaile gisa definitu zen. Erakundeak iraun zuen bitartean, hainbat aldaketa teoriko eta praktikoa izan ziren, batez ere 1970eko hamarkadatik aurrera, egiten zituzten batzarretan definitutakoak. Hori dela eta, beharrezkoa da bereiztea taldea dagokion batzarren edo sortutako beste talde batzuen arabera. Aldaketa horiek, eta, bereziki, praktikoez, taldeak frankismoaren aurkako sektore gisa zuen gizarte-babesa murriztea eragin zuten, 1990en hamarkadatik aurrera izuaren sozializazioa bezala ezagutzen den fenomeno gertatu zen. Amaitzeko, 2011ko urrian taldeak armak utzi zituen.

⁶ PCEml ezker erradikaleko alderdi goiztiarrena izan zen, 1964an sortua. PCEml-k hiru erakundeetan oinarrituriko antolaketa zuen: PCEml alderdia (1960 eta 1970 hamarkada bitartean, oposizio antifrankistan nagusienetarikoa zen), FRAP frontea eta FRAParen inguruko talde armatuak (Satrustegi, 2022, 96). Hala ere, FRAP ez zen PCEml-ren adar armatua, teorikoki ekintza taldeak taldetik bereizita zeuden arren, gerora horiek bere izenenean aldarrikatzen zirenez, talde terroristar armatu gisa bezala jo zuten Gobernuak eta garaiko prentsak (Satrustegi, 2022, 97.or).

⁷ Euskal Herrian Euskadiko Mugimendu Komunistaren barne zegoen gainontzeko estatuko organizazioa (Espainiako Mugimendu Komunista). Honek Nafarroako antifrankismoan eta langile mugimenduko alderdi nagusienetarikoa izan zen, Iruñean errotua, 1966-1967en inguruan sortua ETArren zatiketetatik eta 1991ra arte iraun zuen (Satrustegi, 2022, 76.or).


⁸ LKI/LCR taldeak hiru erakundetan du jatorria: Nazio Askapenerako Frontea (FLP), Kataluniako Langile Frontea (FOC) eta Euskadiko Sozialisten Batasuna (ESBA). Lehenengoa desegin ondoren, Komunismo taldearen militanteen gehienek LCR eratzeko prozesua hasia erabaki zuten Burgosko Prozesuaren testuinguruan (Causa & Martínez, 2014, 17.or). 1970eko hamarkadaren erdialdean, batasun bat egon zen ETA VI. Batzarrekin, 1973an LCR-ETA (VI) izenarekin bateratuta. Euskal Herrian Liga Komunista Iraultzailea izena nagusitu zen (Causa & Martínez, 2014, 30 – 34.or).

handiena ETA da 9 aipamenekin, zeinari jarraitzen dioten Espainiako Mugimendu Komunista (5), FRAP (4); eta txikiagoak diren arren PCE eta LKI/LCR (hirutan bakoitza), Langile Mugimendua bitan eta EGI⁹ zein Ikasle Mugimendua bakoitzeko aipamen bakarrarekin.



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

⁹ EGI, EAJren gazteen adarra zen, eta TOPak euskal erakunde klandestino gisa definitzen zuen, multzo hispanoa zatikatzea helburu zuena, indar-metodoak erabiltzea proposatuz (Nuñez de Prado eta Ramirez, 2013, 280.or). ETAREN sorrerarekin, 1958an, EGI-ko militante batzuk talde horretara pasatu ziren (Casanova, 2007).




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Kondenei dagokienez, epaitegiak Nafarroarekin lotura zuten emakumeen %74a kondenatu zuen eta %26 aske gelditu zen. Aske geldituriko emakumeak hurrengo delituekin lotuta zeuden: inprimaki klandestinoak, manifestazio ez baketsua (ETArekin lotuta), elkarte ez zilegia (PCErekin, Espainiako Mugimendu Komunistarekin eta LKI/LCRrekin bakoitza kasu batekin lotuta), propaganda ez zilegia (Espainiako Mugimendu Komunistarekin lotuta hiru kasutan) eta desordena publikoa (Corpus Christiarekin lotuta). Nahiz eta zazpi emakume hauen kasuan, epaitegiak aske utzi zituen, honek ez du frogatzen hauek militanteak ez izatea, baizik eta epaitegiak ez zuela froga nahikorik bildu erakunde horietan militatzen zutela ebatzi ahal izateko. Horrekin batera, emakume bat bi deliturengatik epaitu zuten eta horietako batean, Espainiako Mugimendu Komunistarekin lotutako propaganda ez zilegiarekin lotuta dago.

Delituekin jarraituz, kondenatuta agertu ziren 20 kasuetan, gehiengoaren zigorra espetxeratzea izan zen, %70an, solik kasu batean (%5a) zigor ekonomikoa bakarrik ezarri zioten eta %25aren kasuan -bost sententzietan- espetxeratzea eta multa ebatzi zuen Auzitegiak. Espetxeratzearen kondena-denborari dagokionez, emakume gehienei bi urte baino


gutxiagoko kartzela-zigorra ezarri zitzairen. Hauen barnean, espetxeratze zigorraren tarte nagusia 6 eta 12 hilabete artekoa izan zen; zehazki 6, 7 eta 12 hilabetekoa. Urte eta erdi baino gutxiagoko espetxeratzeen kasuan, gehienak 3 hilabetekoak dira. Bi urteetatik gorako espetxealdiak 6 sententzian agertzen dira, non nabarmentzen diren batez ere 36 – 42 eta 48 – 52 hilabete tarteak. Emakume guztien artean, espetxeratuta denbora gehien pasa zutenak izan ziren: bigarrena, 4 urte eta 2 egun ETAko elkarte eta propaganda ez zilegiari eta sarrera klandestinoan lurralde nazionalan delituei lotuta – emakume honek, zigor ekonomikoa jasan zuen ere-, eta lehendabizikoa 4 urte, 2 hilabete eta egun bat da, FRAPeko elkarte ez zilegiaren delitua errepikatzeagatik. Arlo hau amaitzeko, kondena ekonomikoak ditugu, hauek 5.000 eta 30.000 pezeta bitartekoak izan ziren. 5.000 pezetan kasuan, horrek erreferentzia egiten du soilik kondena ekonomikoa izan zuen emakumeari, langile mugimenduari ere erlazioa duen manifestazio ilegalaren delituagatik, besteak aldiz, hau izateaz gain, espetxeratzea pairatu izan zuten. Hurrengo tarteak, eta bi kasu dituen bakarra 10.000 pezeta dira, zeinak LKI/LCR eta EGI taldeekin loturiko propaganda ez zilegiarekin lotuta daude; 28.000 pezeta isunaren kasuan ere LKI/LCR taldearen propaganda ez zilegiarekin lotuta dago. Azkenik, 20.000 eta 30.000 pezeta isunen kasuan, bi hauek bi delituengatik inposaturiko kondena ekonomikoak dira; lehendabizikoan, 10.000 pezeta elkarte ez zilegiagatik eta 10.000 pezeta propaganda ez zilegiagatik, biak ETARI lotuta, eta bigarrenean, 10.000 pezeta FRAPeko propaganda ez zilegiagatik eta 20.000 identitate faltsuagatik.

15. Grafikoa. TOPean epaitutako eta Nafarroarekin lotura zuten emakume kondenatuen kopurua




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.


16. Grafikoa. TOP-ean epaitutako eta Nafarroarekin lotura zuten emakumeen kondena mota



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententzietan.




Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententzietan.

Nadia Varo-k azaltzen duen bezala, Brigada Sozialak – poliziak – emakumeak “arriskutsutzat” edo “gaiztotzat” jotzeak ondorioak izan zitzakeen tratu txarren edo torturan praktiketan (Varo, 2012, 99.or), nahiz eta metodo hauek ez ziren emakumeengan burutu nagusiki 1960eko hamarkada bukaera arte, emakume atxilotuen kopuruarekin batera metodo hauen erabilera hazi zenean.

Nafarroarekin loturiko sententzietan agertzen diren emakumeen kasuan, gehiengoak torturak jasan zituen. Kasu honetan, %89ak, 24 emakumeek,

praktika hauek jasan zituztela salatu zuten garaian edo geroago, horietatik askok Euskal Kriminologia Institutuak egindako ikerketa lanetan ageri dira (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 54). Soilik %11aren kasuan, alegia, 3 emakume, ez daukagu frogarik torturak jaso zituztenik.



Iturria: Egileak egina (2024). TOP-eko 1967tik 1976ko sententziekin.

Euskal Kriminologia Institutuak 1960 eta 1978 urte bitartean egindako azterlanean erakusten denez, nafarrek tortura edo tratu txarreatatik jarritako 169 salaketetatik 114 Nafarroan atxilotutako pertsoneri dagozkie (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 54.or). Oro har, torturen eta tratu txarren metodo ohikoenak kolpeak, mehatxuak, itolarria, jipoiak, ile-tirakadak, gabetzeak, legez kanpoko galdeketak, loa kentzea, janaria edo oinarritzko premiak edo gaixotasunen tratamendurik eza izan ziren, besteak beste; horretaz gain, 9 aldiz erabili zen sexu-indarkeria erreferentzia eginez, hala nola: bortxazko biluztasunari, hitzezko sexu-umiliazioei, kolpe genitalei, ukituei edo objektuak sartzeari (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 60 eta 61.or).

Ilido horretan, Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funttsaren Memoriapaperetan, bere datu-basearen kategoria errepresiboen barruan, torturak eta eraso fisikoak honela jasotzen ditu: preso ziren pertsonen aurkako torturak, tratu txarrak eta erasoak (Majuelo et al., 2019, 21.or). Honen barneko azpikategoriatan bereizten ditu tortura: preso edo atxiloturik

ziren pertsonen aurka eragindako min, eraso edo oinaze larrien multzoa, izan fisiko edo psikologikoak; eta tratu txarrak: preso edo atxiloturik ziren pertsonen aurka eragindako min, eraso edo oinaze larrien multzoa, izan fisiko edo psikologikoak, baina tortura gisa uler daitezkeen horiek baino intentsitate maila txikiagokoak (Majuelo et al., 2019, 27.or). Horrekin batera genero-erasoak edo sexudun biolentzia honela jasotzen da: generoa dela eta, errepresaliatutako pertsonaren identitatea edo gorputza zigortzeko erasoak (Majuelo et al., 2019, 21.or); honen barnean, honako azpikategoriak jasotzen dira: ilea arrasean moztea: emakumeei egindako ile mozketak iraingarriak; ibilaldi umiliagarriak: umiliatzea helburu, espazio publikoetan ibilaldiak egitera behartzea (errizino-olioa edan ondotik, oihuak, irainak, isekak jasateko...); eta sexu erasoak, kutsu sexualeko edo sexu asmoko bestelako eraso fisikoak (Majuelo et al., 2019, 28.or).

Aurretik aipatu bezala, TOP-ean epaituriko emakume batzuek garaian eta gerora salaketak egin dituzte, honekin, haien testigantzak biltzeko ikerketak egin dira. Epaituriko emakume baten kasuan, 1969.an torturen ondorioz zain zegoen semea galdu zuen, eta beste baten kasuan, 1976ko apirilean fabriketan eta karrketan bere gorputz torturatuaren irudiak jarri zituzten (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 30 eta 34.or). Beste emakume baten kasuan, bi espetxeratzetan torturatua izan zen, eta 1977an aske gelditu zen Amnistia Legearekin eta publikoki salatu zituen bere esperientzia Argentinako Kereilan parte hartuz. Bere hitzetan *"emakume izate hutsagatik irainduta sentitu nintzen. Biluztu egin ninduten, eta, kolpeak eta mehatxuak alde batera utzita, mota guztietako umiliazio eta irainak jasan nituen, sexualak, hitzezkoak eta ekintzazkoak. Trauma psikologikoa jasan nuen, izuegoera hainbesteraino iritsi zen, non uste nuen arrazoia galduko nuela eta erotu egingo nintzela"* (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 42.or). Horrekin batera, beste testigantzatan aipatzen du hurrengoa:

"Ez zidaten ezer esan atxilotu nindutenean, abalatu ziren, katxeatu eta polizia-etxera eraman ninduten. Torturatu egin ninduten eta orduak eman zituzten (...), txandakatzen ziren, (...) ahoan gatzak botatzen zidaten,

sentadillak, flexioak edo kukubilko jartzeko agintzen zidaten. Amaigabea izan zen, ordu asko eta lorik egin gabe. Gorputz osoan kolpeak eman zizkidaten, asko buruan, ezagutezin nengoen. Mehatxu egin zidaten eta simulazioak egin zituzten "egiaren seruma" emateko eta elektrodoak aplikatzeko. Ez zen inoiz idazkari judizialik edo medikurik aurkeztu. (...) Askotan biluztu ninduten, hor dago emakume izaera, haien artean pasearazten ninduten, sexu-amorrazio izugarria zuten, "parece mentira con lo bonita que eres" esaten zuten, maila sinesgaitzetan iraintzen zaituzte. Ukituak izan ziren, baina ez zen sarketarik izan. Ostikoa ematen zidaten eta "esto por los Derechos Humanos" esaten zuten. Valladoliden oso piztia izan zen, Iruñekoa ez dut gogoratzen, Valladoliden etengabeko iseka zen" (FDMHN-NOHDF, 2016).

Torturaren testigantzekin amaitzeko, azken kasu bat daukagu, bere hitzetan: "Atxilotu nindutenean 3 egun eman nituen polizia-etxean inkomunikatua. Galdekatu eta torturatu egin ninduten. Presio psikologiko handia zegoen, eta etengabeko mehatxuak niri, familiari eta bikotekideari. Hiru egun eman nituen lo egin ezinik, abokatuentzako eskubiderik gabe. Tortura psikologiko oso gogorra izan zen. Hortik kartzelara pasatu nintzen eta beste hiru egunez inkomunikatuta egon nintzen, sei egun guztira, tentsio handia da, esaten dudan eta ez dudan denbora guztian pentsatzen duzulako. Kartzelan sartu nindutenean, 21 egun preso arruntekin, hor konturatzen naiz diktadura ez dela soilik askatasun politiko eta sozialen gabezia, baizik eta Alfer eta Gaizkileen lege bat dagoela, emakumeak kartzelara eramaten dituen, ez ziren pobreak bakarrik, abortuagatik, sexu eta ugalketa eskubideen faltak kartzelara eramaten zituen, abortatzen zuten emakumeak, prostitutak... denetarik zegoen" (FDMHN- NOHDF, 2022).

5. ONDORIOAK:

Ordena Publikoaren Auzitegia Nafarroarekin loturiko gizonezkoen azterketa egin ez den arren, hauen sententziei begirada emanez generoen arteko desberdintasunak aurkitu daitezke, haintzat hartuta ere hauen

kopurua handiagoa dela. Sententzietan agertzen diren gizonetzkoen kasuan urte tarte nagusiena 20 – 30 da emakumeekin ematen den bezala, hauen artean bestelako tarteak ere nagusitasun handiagoa dute. Horrekin batera, emakumeekin gertatzen ez den bezala, gizonetzkoen lanbideak zehazki seinalatzen dira (iturgina, arotza, metaleko langilea, merkataritza...). Desberdintasunekin jarraituz, aztertutako emakumeek orduko elkarte, mugimendu zein talde politikoei lotutako delituengatik epaituak izan ziren. Gizonetzkoen kasuan aldiz, horietaz gain bestelako delituak agertzen dira sententzietan, hala nola, lapurretak, armak legez kontra edukitzea edo agintaritzaren aurkako atentatuak, besteak beste.

Bestalde, Euskal Kriminologia Institutuaren txostenean azaltzen denez, nafarrek Hego Euskal Herri guztian egindako tortura edo tratu txarreatik salaketa gehienak Nafarroan izan ziren (% 67,5), ondoren Gipuzkoa (% 11.8), Bizkaia (% 4,7) eta Araba (% 0,6) eta beste probintzia batzuk (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 58.or). Izan ere, Euskal Herrian egoera berezia bizi izan zen, politika berriek ez zuten oposizioaren mobilizazioak mantsotu eta 1970en hamarkadatik aurrera zonalde hau hamarkadatan Espainiar Estatuko zonalde gatazkatsuenak izan zen. Honetan gertatutako istilu, protesta eta mobilizazio garrantzitsuenak Gasteizko 1976ko sarraskia, Euskal Herriko Amnistiaren Aldeko II Astea 1977an, Askatasunaren Aldeko Ibilaldia 1977an, 1978ko San Ferminak edota Tuterako zentral nuklearraren kontrako greba 1979an izan ziren; baita haien inguruan gertatutako errepresioaren eta hilketen ondoriozko mobilizazioak ere. Mobilizazio hauetariko asko gizarte mugimendu berrien sorrerarekin lotuta daude, hala nola: feminismoa, ekologismoa, mugimendu antinuklearra, mugimendu antimilitarista, kontzientzia eragozpena hala intsumisioa besteak beste. Torturaren kasuan, Euskal Kriminologiaren Institutuak, 2019ko txostenean aipatzen duen moduan trantsizio osteko garaiko ikerketak egin behar zirela bultzaturik (Euskal Kriminologia Institutua, 2019, 64.or), 2022an bigarren txosten bat argitaratu zuen non 1979tik 2015ra bitartean nafarrek guztira Hego Euskal Herrian 532 tortura kasu salatu zituzten, horietatik %85a – 432

kasu – Nafarroan salatu ziren (Euskal Kriminologia Institutua, 2022, 54 eta 55.or).

Historiografiari dagokionez, Ordena Publikoaren Auzitegia Estatu Espainiar mailan nagusiki landua izan den arren, batez ere Del Aguilaren eskutik, Estatu zein Nafarroako kasurako genero ikerketen beharra dago, zeinekin genero desberdintasunak aztertu (datu pertsonalen, militantziaren, delituen edota kondena moten aldetik). Zentzu honetan, Nadia Varoren genero ikerketa daukagu, batez ere TOPea epaituriko Kataluniarekiko lotutako emakumeekin (Varo, 2012).

TOP-ean epaituriko Nafarroarekin loturiko 225 kasuetatik, %12a 26 emakumezkoiei dagozkie, denak garaiko mugimendu soziopolitikoei lotuta. Emakume militanteak aurretik egon baziren ere, 1960en hamarkadatik aurrera kopurua hazi zen. Hala ere, horrelako azterketa kuantitatiboa egitean, ez dira nahastu behar emakumei buruzko epai eta talde edo mugimenduetako emakumeen militantzia errealaren kopurua. Kontutan hartu behar da frankismoak emakume horiei buruz emakume zintzoaren idealaren aurka zihoazela esaten zuen aldi berean, horiek militantziari buruzko genero-kanonak errepikatzen zituztela, eta ez zutela uste erakunde horietako kide zirenik.

Emakumeek jasandako zigorra bikoitza zen, alde batetik politikoarekin loturiko disidentzia, ideologia alegia, eta bestalde, genero disidentzia, erregimenak erreproduzitu nahi zuen emakumearen idealaren kontrako jokabideak eramaten zituztelakoan, eta honi lotutako genero-indarkeria. Emakumeen militantziaren kopuruaren hazkundera, printzipio feministak eta berdintasuna errepikatzearekin batera, oinarri gisa har daiteke gerora erabateko militantzia feminista izango litzatekeenerako, feminismoaren bigarren edo hirugarren olatuarekin¹⁰ eta parte-hartzaileen gorakadarekin.

¹⁰ Feminismoaren olatuen inguruan, autore bakoitzak modu desberdinean finkatzen dituzte, izan ere ez dago hauen arteko adostasun kronologikorik ez kuantitatiborik. 1960en hamarkadaz geroztik emandako olatua autore batzuen aburuz bigarrena da, hori da Mónica Moreno eta Teresa María Ortégaren tesia (Ortega & Moreno, 2023), aldiz Rosa Cobo Bediák hirugarren olatu feminista finkatzen du (Cobo, 2022).

6. ITURRIAK:

• BIBLIOGRAFIA

CASANOVA, I. (2007). ETA, 1958-2008: medio siglo de historia. Txalaparta.

CAUSSA, M., & MARTÍNEZ, R. (2014). Historia de la Liga Comunista Revolucionaria. Madrid, La Oveja Roja, 139-152.

COBO, R. (2022/11/21). "Conferencia inaugural". I Congreso Internacional Historia con Memoria en la Educación, Universidad Pública de Navarra, Pamplona, España.

DEL AGUILA, J.J. (2020). El TOP. La represión de la libertad (1963-1977) (2 ed.). Madrid: Fundación Abogados de Atocha.

DE LA TORRE, J. (2006). Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (1950 – 1980). Gerónimo de Uztariz (22), 75 – 103.

DE LA TORRE, J. (2017). Auge, quiebra y reconversión de la industria de electrodomésticos en España a la luz del Grupo Orbaiceta SA. C. 1950 – 1990. Investigaciones de Historia Económica, 13, 26 – 37.or.

GARCÍA, Á. & MIKELARENA, F. (2000). Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el s.XX. Gerónimo de Uztariz, 16, 125 – 138.or.

IRIARTE, J. V. (1986). Aproximación a la conflictividad social de Navarra, 1970-1975. *Príncipe de Viana*, 47 (177), 271-318.

IRIARTE, J. V. (1991). Universidad y movimiento estudiantil en Navarra bajo el régimen de Franco. CARRERAS, J.J. y RUIZ, M.A. (coords.), *La Universidad española bajo el régimen de Franco (1939-1975)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 601-616.

KOWASCH, A. (2017). Tejiendo redes: Mujeres solidarias con los presos del Fuerte de San Cristóbal (1934-1945).

KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA (2019). *Proyecto de Investigación de la Tortura y Malos Tratos en la Comunidad Foral de Navarra entre 1960 – 1978*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA (2022). *Investigación sobre la tortura y otros malos tratos en Navarra desde 1979 a la actualidad*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

LORENZO, C. (2023/08/02). "La conflictividad social en las prisiones de la Transición". Ecos del 36, Universidad Pública de Navarra, Pamplona, España.

LÓPEZ, D., & MONTORO, C. (1936). Cambios en la ciudad de Pamplona (1945-1975). Una mirada desde la demografía. *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, 261-311.

MAJUELO, E., MENDIOLA, F., GARMENDIA, G., PIÉROLA, G., GARCÍA, J. C., YÁNIZ, E., PÉREZ, N., BARRENECHEA, E., RODRÍGUEZ, I. SESMA, R., & BUSTINCE, H. (2019). Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funttsaren azalpena eta erronkak. *Memoriapaper(ak)*, 5.

MENDIOLA, F. (2002). Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981). *Gerónimo de Uztariz*, (17), 211-250.

MORENO, M. (2017). Sexo, Marx y nova cançó. Género, política y vida privada en la juventud comunista de los años setenta.

NUÑEZ DE PRADO CLAVEL, S. & RAMIREZ RUIZ, R. (2013). La oposición al franquismo en las sentencias del TOP: Organizaciones políticas y movimientos sociales. *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 35, 263.

OLIVA, J. & RIVERA, M.J. (2003). Utopías y sentidos de habitar la ciudad dispersa: estrategias residenciales en el área metropolitana de Pamplona-Iruñea. *Zainak Cuadernos de Antropología y Etonografía*, 23, 137 – 153.or.

ORTEGA, T.M. & MORENO, M. (2023). Historia de las mujeres y del feminismo desde 1945. Madrid, Síntesis.

PÉREZ, N. (2016). Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956 - 1976. Pamplona: Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura, Deporte y Juventud.

PÉREZ, N. (2019). Las mujeres en los movimientos sociales y de oposición franquista. Una aproximación a las formas de participación sociopolítica femenina en Navarra durante la dictadura. *HUARTE DE SAN JUAN. Geografía e Historia N. 26/Geografía eta Historia 26. Z. Pamplona: Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa*, 2019. Págs. 115-149.

PIÉROLA, G. (2024). "Violencia hacia las mujeres en el segundo franquismo, ¿una continuación de la anterior?" en: PENCHE, J. & BUCES, J. (coords.), *Represión de género en el franquismo*, Valencia, Tirant Humanidades, pp.177-198 [prentsan].

SATRUSTEGI, I. (2022). Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako ezker iraultzailea, 1970 - 1979. Pamplona: Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura y Deporte.

SOMBRÍA, S. V. (2022). De los consejos de guerra al Tribunal de Orden Público: la represión se "civiliza". In Un siglo de comunismo en España II: presencia social y experiencias militantes (pp. 663-688). Akal.

VARO, N. (2012). Mujeres y hombres: la "represión sexuada" de la militancia política. En " Resistencia ordinaria": la militancia y el antifranquismo catalán ante el Tribunal del Orden Público:(1936-1977) (pp. 85-106). Universitat de València.

VELASCO, L. (2023). Iruñeko espetxeko preso politikoak 1940an: lehen hurbilketa kuantitatiboa. Memoriapaper (ak): documentos de trabajo del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra= Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Fondo Dokumentalaren langaiak, (12), 1-38. Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Fondo Dokumentalaren langaiak, (10), 1-70.

• AHOZKO ITURRIAK:

FDMHN-NOHDF(16/05/2016). Entrevista realizada a Gloria Bosque Ezker.

FDMHN-NOHDF(22/12/2022). Entrevista realizada a Blanca Fernández Viguera.